

Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3529

ERABAKIA, 2009ko apirilaren 20koa, Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren Administrazio Kontseiluarena; horren bidez, kontratatutako ikertzaileen ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko deialdia onartzea eta argitaratzea erabaki da.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaile kontratatuengandik Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentziaren ebaluazioa eta egiaztapena lortzeko prozedura arautzen duen azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa betez, eta Uniqua Agentziaren Administrazio Kontseiluak 2009ko apirilaren 20an hartutako Erabakiaren bidez onartutako Protokoloaren 4. puntuan ezarritakoari jarraiki, Agentziaren Administrazio Kontseiluak,

ERABAKI DU:

Bakarra.– Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen II. Tituluan aurreikusitako lanbide-kategorietako batean kontratatzeko eta egiaztzeko beharrezkoa den irakasleen irakaskuntza-jardueraren eta/edo ikerketa-jardueraren ebaluaziorako deialdia onartzea eta argitaratzea, honako oinarri hauei jarraiki:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Euskal Herriko Unibertsitateko doktore-tituludun ikertzaile gisa kontratatu ditzaten nahi dutenen irakaskuntza-jarduera eta/edo ikerketa-jarduera ebaluatzea da deialdi honen xedea.

Bigarrena.– Ebaluazioaren edo txostenaren eskabidea aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabete izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3529

ACUERDO de 20 de abril de 2009, del Consejo de Administración de Uniqua, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Agentzia / Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, por el que acuerda aprobar y publicar la convocatoria para la evaluación y acreditación del personal investigador.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 192/2007, de 13 de noviembre, por el que se regula el procedimiento para obtener la evaluación y acreditación de Uniqua, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, por parte del personal docente e investigador contratado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y de acuerdo con lo establecido en el punto 4.º del Protocolo aprobado mediante Acuerdo del Consejo de Administración de Uniqua, de 20 de abril de 2009, el Consejo de Administración de la Agencia,

ACUERDA:

Único.– Aprobar y publicar la convocatoria para la evaluación de la actividad docente y/o investigadora del personal de investigación precisa para su acreditación y contratación en alguna de las categorías profesionales previstas por el Título II de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– Objeto.

1.– La presente convocatoria tiene por objeto la evaluación de la actividad docente y/o investigadora de quienes deseen ser contratados como personal doctor de investigación.

Segunda.– Plazo de presentación de la solicitud de evaluación o informe.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y de conformidad con lo previsto en el artículo 48 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Hirugarrena.– Ebaluazioaren eskabidea aurkezteko lekua eta modua.

1.– Eskabideak Unigual, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Agentzian aurkeztuko dira, eta, interesdunaren curriculumarekin batera, aplikazio informatiko baten bidez sortuko dira. Aplikazio hori Agentziaren web-orrian dago eskuragarri (www.unigual.org).

Eskabidea, halaber, deialdi honen I. eranskin gisa gaineratutako eredia bete ondoren aurkez daitezke.

2.– Eskabidea, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein baliabideren bidez aurkeztu ahal izango da.

3.– Eskabidea posta-bulegoetan aurkezten duten interesdunek posta-zerbitzuak emateko Araudia onartzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoari jarraitu beharko diote. Artikuluak honako hau dio:

«Herritarrek edo erakundeek posta-zerbitzu unibertsala emateko agindua jaso duen operadorearen bitartez herri-administrazioen organoetara bidaltzen dituzten eskabideak, idazkiak eta komunikazioak gutunazal irekian aurkeztuko dira, eta bulegoaren izena eta onarpenaren lekua, ordua eta minutua jasoaraziko dira, argi eta garbi, bidali nahi den dokumentuaren lehen orriaren goiburuan. Halaber, bidali nahi den dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo beste erreprodukzio mota baten lehen orrialdean bidalketaren zirkunstantziak jasoaraztea eskatu ahal izango du igorleak, identitatea jatorrizkoarekin konparatu ondoren. Dokumentua administrazio-organismo eskudunari aurkeztu izana egiaztatuko duen agiri gisa aurkeztuko da.

Adierazitako eginbideen ondoren, igorleak berak itxiko du gutunazala, eta enpleguak onarpenaren ordezkagiria egin eta emango du. Ordezkagiri horren jatorrizkoa bulegoan artxibatuko da.

Artikulu honetan aurreikusitako betebeharrei jarraiki, posta-zerbitzu unibertsala emateko agindua jaso duen operadoreak onartutako bidalketak behar bezala aurkeztutzat hartuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan eta haren garapen-araudian aurreikusitako ondorioetarako.»

Laugarrena.– Eskabidearen edukia.

Eskabidean, ebaluazioa edo txostena egiteko eskaera zer kontratu motari dagokion adierazi beharko da.

Tercera.– Lugar y forma de presentación de la solicitud de evaluación.

1.– Las solicitudes serán presentadas en Unigual, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco- y se generan, junto con el currículo del o la interesado/a, mediante una aplicación informática que estará disponible en la página web de la Agencia (www.unigual.org).

La solicitud formalizada puede también entregarse una vez completado el modelo que se incorpora como anexo I de la presente convocatoria.

2.– La solicitud puede ser igualmente presentada por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Las personas interesadas que presenten su instancia en las oficinas de correos, deberán hacerlo en la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de los servicios postales, que establece lo siguiente:

«Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.

Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.

Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en su normativa de desarrollo.»

Cuarta.– Contenido de la solicitud.

En la solicitud se deberá indicar para qué modalidad contractual se solicita la evaluación o informe.

Bosgarrena.– Ebaluazio-eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabidearekin batera, Agentziaren web-orrian (www.uniquial.org) eratu daitekeen curriculum vitae aurkeztu beharko da. Curriculum vitae eredu hau deialdi honen I. eranskin gisa aurki daiteke.

Halaber, eskatutako titulazioa edukitzea eta interesdunaren historial akademikoa osatzen duten merituz guztiak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia aurkeztu beharko da, deialdi honen I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

2.– Legez eskatutako baldintzak edo alegatutako merituz betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoa den guztietan eskatu ahal izango die Uniquial agentziak eskatzaileei dokumentazioa aurkezte.

3.– Ebaluazio-eskabidearekin batera, aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren deklarazioa aurkeztu behar dute interesdunek. Deklarazio horretan, aurkeztutako dokumentu guztien zerrenda sartu behar da. Deklarazio hori egiteko, Uniquial agentziaren web-orrian argitaratutako formularioa erabil daiteke.

Seigarrena.– Ebaluazio-eskaerak jasotzea eta bideratzea.

1.– Uniquial agentzian eskabidea jaso ondoren, eskatzaileari eta eskatutako irudiari emandako identifikazio-kode batekin erregistratuko da eta espediente bat irekiko da, sarrera-data adierazita.

2.– Deialdi bakoitzean, eskatzaile eta irudi bererako espediente bakarra sortu ahal izango da. Interesdunak irudi bererako hainbat espediente sortzen baditu, aurkeztutako azken eskabidea soilik hartuko da kontuan.

Zazpigarrena.– Ebaluazio-irizpideak.

1.– Uniquial agentziak 2008ko uztailaren 29ko 149/2008 Dekretuaren bidez eta azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren eranskinean aurreikusitako irizpideei jarraiki kontratu-irudi bakoitzerako onartutako ebaluazio-irizpideen arabera beteko dute beren zeregina Ebaluazio Batzordeek.

2.– Ebaluazio-organismoek deialdi honetan II. eranskin gisa jasotako puntuazio orientagarriak hartuko dituzte kontuan eskatzaile bakoitzak alegatutako merituz balioesteko garaian, 2008ko uztailaren 29ko 149/2008 Dekretuaren bidez onartutako mugen barruan.

Zortzigarrena.– Ebazpena.

1.– Ebaluazioa edo txostena lortzeko prozesuen emaitzak Uniquial agentziako zuzendariaren ebazpen bidez formalizatuko dira. Eskaera bakoitzak bere ebazpena izango du. Ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, adierazitako Agentzian, hilabeteko epean, edota, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegi eskudunetan, bi hilabeteko

Quinta.– Documentación a aportar junto con la solicitud de evaluación.

1.– La solicitud ha de ir acompañada de una copia del historial académico, el cual será redactado conforme al modelo de curriculum vitae normalizado al se tendrá acceso en la página web de Uniquial y que se incorporará como anexo I de esta convocatoria.

Asimismo, deberá aportarse copia de la documentación acreditativa de la titulación exigida y de todos los méritos que componen el historial académico del interesado o interesada, según lo previsto en el anexo I de la presente convocatoria.

2.– Uniquial podrá requerir su presentación a los solicitantes en cualquier momento si ello resultare necesario para la verificación del cumplimiento de los requisitos exigidos legalmente o de los méritos alegados.

3.– Junto con la solicitud de evaluación, las personas interesadas han de aportar una declaración de veracidad de la documentación entregada, que incluya una relación completa de los documentos de los que se hace entrega. Dicha declaración puede ser elaborada a partir del formulario publicado en la página web de Uniquial.

Sexta.– Recepción y tramitación de las solicitudes de evaluación.

1.– Recibida la solicitud en Uniquial, ésta será registrada con un código identificativo por solicitante y se abrirá un expediente indicando la fecha de entrada.

2.– Sólo se podrá generar un expediente por convocatoria para una misma figura. En el caso de que la persona interesada genere varios expedientes sólo se tendrá en consideración el correspondiente a la última solicitud presentada.

Séptima.– Criterios de evaluación.

1.– Los Comités de Evaluación realizarán su labor en función de los criterios de evaluación aprobados por Uniquial para cada figura contractual mediante Decreto 149/2008, de 29 de julio de 2008, de conformidad con los previstos en el anexo al Decreto 192/2007, de 13 de noviembre.

2.– Los órganos de evaluación tendrán en cuenta al valorar los méritos alegados por cada solicitante las puntuaciones orientativas recogidas como anexo II a la presente convocatoria dentro de los límites de las aprobadas por Decreto 149/2008, de 29 de julio de 2008.

Octava.– Resolución.

1.– Los resultados de los procesos de evaluación o informe se formalizarán mediante resolución de la Directora de Uniquial individualizada para cada solicitud. Contra dicha resolución cabe interponer, con carácter potestativo, recurso de reposición ante dicha Agencia en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo competentes en el plazo de dos

epean (bi kasuetan, ebazpena jakinarazten denetik aurrera kontatzen hasita).

2.– Ebazpenetan ebaluazioa positiboa edo negatiboa izan den eta txostena aldekoa edo kontrakoa izan den adierazi beharko da.

3.– Ebaluazioaren ebazpenak deialdi honetan eska-bideak aurkezteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan jakinarazi beharko zaizkie interesdunei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5 artikuluan xedatutakoa aparte utzi gabe. Dagozkion xedeetarako, abuztua hilabete baliogabetzat hartuko da.

4.– Aurreko idatz-zatian adierazitako epearen barruan ebazpenik izan ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan aurreikusitako ondorioak sortuko dira.

5.– Ebaluazio negatiboa edo kontrako txostena jaso duen interesdunak ezin izango du irakasle irudi horretarako beste ebaluazio-eskaera bat edo txosten-eskaera bat aurkeztu dagokion jakinarazitako ebaluazio negatiboa irmoa izan eta sei hilabete igaro arte, Uniquial Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren ebaluazioa eta egiaztatpena lortzeko prozedura arautzen duen azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 8.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Bederatzigarrena.– Dokumentu-erregimena eta datu pertsonalen inguruko eskubideak.

1.– Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, interesdunek emandako datuak Uniquial agentziaren titulartasunpeko fitxategi automatizatu pertsonal batean sartuta geratu ahal izango dira Agentziak deitutako beste prozesu batzuk garatzeko, betiere interesdunak prozesu horietan parte hartzen badu.

2.– Fitxategi pertsonala Uniquial agentziaren Zuzendaritzaren erantzukizunpean geratuko da (San Prudentzio kalea, 8; 01005 Vitoria-Gasteiz).

3.– Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki tratatuko dira datu pertsonalak, eta informazioaren konfidentziasuna eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartuko dira.

Gainera, tratamendu egokia jasoko dute datu horiek, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean eta Lege hori garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

meses, en ambos casos contados desde la notificación de la resolución.

2.– Las resoluciones deberán indicar si la evaluación ha sido positiva o negativa y si el informe tiene, por tanto, carácter favorable o desfavorable.

3.– Las resoluciones de la evaluación deben ser notificadas a las personas interesadas dentro de los seis meses siguientes a la expiración del plazo de presentación de solicitudes abierto por esta convocatoria, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 42.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. A estos efectos, el mes de agosto será inhábil.

4.– La falta de resolución dentro del plazo señalado en el apartado anterior producirá los efectos previstos en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– La persona interesada que haya obtenido una evaluación negativa o informe desfavorable no podrá efectuar una nueva solicitud de evaluación o informe para esa misma figura hasta que hubieran transcurrido seis meses desde la fecha en que sea firme la evaluación negativa notificada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 8.2 del Decreto 192/2007, de 13 de noviembre, por el que se regula el procedimiento para obtener la evaluación y acreditación de Uniquial, Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

Novena.– Régimen documental y derechos respecto a los datos de carácter personal.

1.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal (LOPD), los datos suministrados por los interesados o las interesadas podrán quedar incorporados en un fichero automatizado Personal, cuyo titular es Uniquial, para el desarrollo de los procesos convocados por la Agencia, siempre que el interesado/a participe en los mismos.

2.– El fichero Personal quedará bajo la responsabilidad de la Dirección de Uniquial, en la calle San Prudentzio, 8 (01005 Vitoria-Gasteiz).

3.– Los datos de carácter personal serán tratados de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y se adoptarán las medidas de seguridad necesarias para garantizar la confidencialidad y la integridad de la información.

Asimismo, estos datos recibirán un tratamiento adecuado, según lo dispuesto en la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos y en el Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la citada Ley.

4.– Interesdunek eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Unigual agentziaren bulegoetan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa betez.

Hamargarrena.– Errekurtsoak.

Deialdi hau eta haren oinarriak behin betikoak dira administrazio-bidean, eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango diete interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekiko auzietako jurisdikzio-organoei bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 109. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 14. eta 46. artikuluetan ezarritakolari jarraiki. Halaber, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango diote Agentziari hilabete bateko epean, adierazitako 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluei jarraiki.

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 20a.

Unigualen Administrazio Kontseiluko idazkaria,
PATXI JUARISTI LARRINAGA.

Oniritzia. Unigualen Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

4.– Las personas interesadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, en cumplimiento de lo que establece la LOPD, ante las oficinas de Unigual.

Décima.– Recursos.

Contra la presente convocatoria y sus bases, que son definitivas en la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, ante los órganos jurisdiccionales de lo Contencioso-Administrativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con lo establecido en el artículo 109 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común., así como en los artículos 14 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, y potestativamente podrán interponer el recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante la Agencia, de conformidad con los artículos 116 y 117 de la referida Ley 30/1992.

El presente Acuerdo entrará producirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2009.

El Secretario del Consejo de Administración de Unigual,
PATXI JUARISTI LARRINAGA.

V.ºB.º El Presidente
del Consejo de Administración de Unigual,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

I. ERANSKINA / ANEXO I

CURRICULUM ESKAERA / INSTANCIA CURRICULUM

DEIALDIAREN DATA: CONVOCATORIA DE FECHA:		
I.– Eskatzailearen datuak / Datos del solicitante		
Lehen deitura / Primer apellido	Bigarren deitura / Segundo apellido	Izena/Nombre
NAN/DNI	Helbidea/Domicilio	Telefonoa/ Teléfono
PK/CP	Udalerría/Municipio	Probintzia/Provincia
Jaiotze eguna / Fecha de nacimiento	Jaiotze tokia (herria eta probintzia) Lugar de nacimiento (municipio y provincia)	
II.– Betebeharrak/Requisitos (Adierazi «x» batez dagokiona / Marcar con una «x» lo que proceda)		
Tituluak/Titulación Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak homologatuak Homologados por el Ministerio de Educación y Ciencia)	Doktorea/Doctor <input type="checkbox"/> Lizentziatua, ingeniaria, arkitektoa Licenciado, Ingeniero o Arquitecto <input type="checkbox"/> Diplomatua, ingeniari teknikoa, arkitekto teknikoa/ Diplomado, Ingeniero Técnico o Arquitecto Técnico <input type="checkbox"/>	
Doktore gradua eskuratzeko eskatutako ikasketak Estudios exigidos para obtención del grado de doctor	<input type="checkbox"/>	
Egungo lanbidea Actividad profesional actual	<input type="checkbox"/>	
Hurrengo Unibertsitate edo Unibertsitateetan lan egiten dut edo lan egin dut Presto o he prestado servicios en lallas Universidad/es de _____		

Ezagutza arloa / Campo de conocimiento:

- 1.- Esperimentazio zientziak / Ciencias Experimentales.
- 2.- Medikuntzako eta Osasuneko Zientziak / Ciencias Médicas y de la Salud.
- 3.- Irakaskuntza Teknikoak / Enseñanzas Técnicas.
- 4.- Zientzia sozialak, juridikoak eta ekonomikoak / Ciencias sociales, Jurídicas y Económicas.
- 5.- Giza Zientziak / Humanidades.

Behean sinatzen duenak adierazten du eskaera honetan aipatutako datu guztiak zuzenak direla, eta horrela ager dadin eskaera sinatzen du

El abajo firmante declara ser ciertos todos los datos que incluye en esta solicitud, y para que así conste lo firma en
....., a de de 200.....

Sinadura/Firma

OHARRA: Eskaera honetan aipaturiko merituak baino ez dira hartuko kontuan. Orri hauen behar beste kopia aurkeztu ahal izango dira. Eskaeran aipaturiko merituen egiaztagirien kopiak besterik ez dira aurkeztuko instantzia bakoitzarekin batera.

NOTA: Sólo serán considerados los méritos consignados en este formulario, de cuyas páginas se podrán incluir cuantas copias sean necesarias. Con cada instancia deberán presentarse únicamente las copias de los documentos acreditativos de los méritos alegados.

1.– Ikerketa jarduera eta jakintzaren transferentzia (75 puntura arte)

1.1.– Argitalpenak eta patenteak.

– Argitalpenak (egileak, titulua, aldizkaria/liburua, bol., orr., urtea, ISBN/ISSN, eragin-indizea edo antzekoak). Arte ederren katalogo. lizentziatutako patenteak.

1.2.– Proiektuak eta ikerketa kontratuak/jakintzaren transferentzia (arloarekin erlazionatutakoa edo unibertsitateari lotua OTRI edo antzeko beste zentro batzuen bitartez).

– Ikerkuntza-proiektuetan partaide izatea (proiektuaren izena, kodea, finantzaketa egin duen erakundea, Iraupena, partaidetza-mota, Ikertzaile-kopurua, Diru-laguntzaren zenbatekoa).

– Enpresa edo erakunde publiko edo pribatuekin ikerkuntza-kontratueta partaide izatea (gehienez 3 kontratu/urte). (Kontratuaren izena, Kodea, Finantzaketa egin duen erakundea edo enpresa, Iraupena, Partaidetza-mota, Ikertzaile-kopurua, Diru-laguntzaren zenbatekoa).

– Ekintza berezietan/jakintza-sareetan partaide izatea (ekintzaren izena, kodea, finantzaketa egin duen erakundea, iraupena, partaidetza-mota, ikertzaile-kopurua, diru-laguntzaren zenbatekoa).

– Tresna-ekipamendu eta teknika berritzaileak diseinatzea, prestatzea eta erabiltzea, eta ikerketarako erbilera komuneko softwarea eta abar sortzea (ekintzaren izena, kodea, finantzaketa egin duen erakundea, iraupena, partaidetza-mota, ikertzaile-kopurua, diru-laguntzaren zenbatekoa).

1.3.– Kongresuak.

– Estatuko eta nazioarteko kongresuetan eta hitzaldi zientifikoetan parte-hartzea (egileak, izena, partehartze-mota, kongresua, argitarapena, tokia, urtea).

1.4.– Hirugarren zikloko jarduerak. Doktorego-tesiak zuzentzea (defendatutako tesiak).

1.5.– Ikerketako beste merezimendu batzuk.

2.– Irakaskuntza-jarduera (15 puntura arte).

2.1.- Unibertsitateko irakaskuntzan egindako ibilbidea.

– Irakaskuntza esperientzia (Unibertsitatea edo Erakundea, Zentrua, Saila, Herrialdea, Urtea, Ikastaroaren izena, gradu edo graduondoa, iraupena, partaidetza-mota (irakasle/ikertzaile/lankide/dedikazioa).

2.2.– Irakaskuntzako argitalpenak eta irakaskuntza-berrikuntza (egileak, izenburua, aldizkaria/liburua/eskuliburua/edizio birtuala/bestelakoak, liburu-atala, itzulpena, bol., orr., Urtea, ISBN).

2.3.– Lan-esperientzia. Alorrarekin lortutako lan-esperientzia, lizentzia fiskal edo lan-kontratu bidez egiaztatua

3.– Kudeaketa eta administrazioa (5 puntura arte)

3.1.– Erantzukizunezko banakako karguak bete izana unibertsitate-kudeaketan, unibertsitateetako estatutuetan bildutakoak edo berdinduak izan direnak

3.2.– Norberaren alorrean berezkoa den hezkuntzaren edo ikerketaren eremuan administrazio-postua bete izana.

3.3.– Bestelakoak.

4.– Prestakuntza akademikoa (5 puntura arte)

4.1.– Unibertsitateko irakaskuntza-prestakuntza. Tesi europarra edo doktoregoa izen handiko nazioarteko unibertsitateetan. Doktorego aparteko saria. Unibertsitateko bestelako titulazioak, Bestelakoak.

4.2.– Ikerketa-egonaldiak. Doktoratu aurreko eta ondoko egonaldiak nazioko edo atzerriko unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan. Egonaldiak unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan irakasle bisitari gisa.

4.3.– Doktoratu aurreko eta ondoko diru-laguntzak eta ikerketa-kontratuak. Doktoratu aurreko eta ondoko diru-laguntzak eta kontratuak, onartutako ebaluazio-agentziek ebaluatuak, edo itzultze-kontratuak, Ramón y Cajal motakoak edo antzeko homologatuak.

5.– Euskara/interes zientifikoa daukan hizkuntza.

(10 puntura arte) Irakaskuntza euskaraz edo interes zientifikoa daukan hizkuntza batean. Doktorego-tesia (defendatutako tesiak) euskaraz edo interes zientifikoa daukan hizkuntza batean defendatzea. Euskaraz edo interes zientifikoa daukan hizkuntza batean gauzatutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan ikertzaile nagusia edo koordinatzaile izatea. Euskaraz edo interes zientifikoa daukan hizkuntza batean gauzatutako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea. Euskaraz edo interes zientifikoa daukan hizkuntza batean argitaratutako ISBNdun liburuak. Bestelakoak.

II. ERANSKINA

EBALUAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:
DOKTORE-TITULUDUN IKERTZAILEAK

Atal bakoitza honela baloratuko da:

1.– Ikerketa-jarduerak eta ezagutza transferitzea	75 puntu gehienez
2.– Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala	15 puntu gehienez
3.– Kudeaketa eta administrazioa	5 puntu gehienez
4.– Prestakuntza akademikoa	5 puntu gehienez

Unibertsitatearen esparruan euskara normalizatzeko egindako jardueri edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean (ingeleza, frantsesa, alemana...) egindako jardueri dagozkien merituengatik, beste 10 puntu eskuratuko dira.

Atalak	Atal bakoitzean gehienez lor daitekeen puntuazioa	Akreditazioa lortzeko gutxieneko puntuazioa
1.– Ikerketa-jarduerak eta ezagutza transferitzea	75 puntu	60 puntu
2.– Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala	15 puntu	10 puntu
3.– Kudeaketa eta administrazioa	5 puntu	
4.– Prestakuntza akademikoa	5 puntu	
5.– Euskara/Interes zientifikoa duen hizkuntza	10 puntu	
Guztira		75 puntu

Akreditazioa lortzeko beharrezkoa da:

A aukera. - Guztira 75 puntu baino gehiago lortzea eta, horrez gain, 1. atalean gutxienez 60 puntu eta 2. atalean gutxienez 10 puntu lortzea.

DOKTORE-TITULUDUN IKERTZAILEAK

1.– Ikerketa-jarduerak eta ezagutza transferitzea (75 puntu gehienez)	
1.1.– Argitalpenak eta patenteak (60 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Ospe handiko argitaletxeetan ISBNrekin argitaratutako liburuak: Liburua, Kapituluaren egilea, Testuaren koordinatzailea (editorea) - Bere esparruko maila handiko/ertaineko aldizkarietan indexatutako zientzia-argitalpenak - Erredakzio-kontseiluak edo nazioarteko berrikusleak dituzten aldizkarietan zientzia-argitalpenak - Patente lizentziadunak; Patente lizentziagabeak; Beste mota batzuetako jabetza intelektuala
1.2.– Ikerketako proiektuak eta kontratuak/Bere esparruarekin zerikusia duen ezagutza transferitzea (unibertsitateari lotuta edo OTRI/DEIKER edo antzeko zentroyen bitartez)/Adituek baloratutako erakusketak edo esku-hartze arkeologikoak (25 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-agentzia aitortuak ebaluatutako deialdi lehiakorren bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile nagusi gisa jardutea: Autonomia-erkidegoetakoak, Estatukoak, Nazioartekoak - Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako deialdi lehiakorren bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile gisa jardutea: Autonomia-erkidegoetakoak, Estatukoak, Nazioartekoak - Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatu ez dituzten proiektuak: Ikertzaile nagusia, Ikertzailea - Enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatuen ikerketa-kontratueta parte hartzea (gehienez 3 kontratu urteko) - Ekintza berezietan edo ezagutza-sareetan parte hartzea - Ikerketarako ekipo eta tresna-teknika berriak diseinatu, doitu eta erabiltzea, erabilera arrunteko softwarea garatzea, etab. - Lan teknikoei edo artelanei buruzko txostenak, azterketak edo irizpenak - Enpresetan edo erakundeetan antolamendua eta prestakuntza (20 ordu baino gehiagokoak) - Ezagutza transferitzeko prozesuak/Industria-diseinuko prozesuak
1.3.– Biltzarrak (5 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Biltzarretan emandako hitzaldi gonbidatuak edo hitzaldi nagusiak: Nazioartekoa, Estatukoa - Biltzarretan emandako ahozko komunikazioak edo posterrak: Nazioartekoa, Estatukoa - Mahai-ingurueta parte hartzea - Lantegiak
1.4.– Hirugarren zikloko jarduerak (20 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Doktoretza-tesien zuzendaritza (defendatutako tesiak)
1.5.– Ikerketako beste meritu batzuk (3 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Biltzarrak eta erakusketak antolatzea, zinema-jaialdien zuzendaritza, etab. - I+G+B planen plangintzan, eratzean eta/edo diseinuan parte hartzea - Ikerketa-ekintzak eta ekintza teknologikoak ebaluatzeko kanpo-batzordeetan parte hartzea - Ikerketa-taldeko koordinatzaile izatea - Bestelakoak

2.– Irakaskuntza-jarduera eta esperientzia profesionala (15 puntu gehienez)	
2.1.– Unibertsitate-irakaskuntzako jardunbidea (10 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Unibertsitate-irakaskuntzan esperientzia, erakundearen aldeko balorazioa duena - Bekadun gisa edo irakasle lankide akreditatu gisa parte hartzea (hitzarmenaren arabera) - Ikerketako graduondoko edo doktoretza-programetako unibertsitate-irakaskuntzan esperientzia (unibertsitateetan edo beste erakunde batzuetan) - Graduondo akademikoko unibertsitate-irakasle gisa izandako esperientzia edo esperientzia profesionala (unibertsitateetan edo beste erakunde batzuetan) - Tesinen, IADen, karrera-amaierako proiektuen eta abarren zuzendaritza - Eskatzaileak irakasle gisa duen kalitatea egiaztatzeko aurkezten dituen ebaluazioak (ikasturteko ebaluazio positiboa duen ikasgai bat hautatu beharko da) - Bestelakoak
2.2.– Irakaskuntzako argitalpenak eta irakaskuntzako berrikuntza (5 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Ospe handiko argitaletxeetan ISBNrekin argitaratutako irakaskuntzako argitalpenak - ISBNrekin argitaratutako eskuliburuak - Erakundeak argitaratutako argitalpen birtualak (on line eskuliburuak) - Irakaskuntzako liburuen itzulpenak - Irakaskuntzako beste material batzuk (praktiketarako liburuak, gidaliburuak, web orriak, etab.) - Irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan ikertzaile nagusi edo koordinatzaile gisa aritzea - ECTSetan ikasgaiak erabat garatzea (ikaskuntza-gidak egitea) - Irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea - Irakaskuntzan teknologia berriak erabiltzea (adibidez: web orriak, on line tutoretzak...) - Europako Goi Mailako Hezkuntzako Esparrura moldatzeko taldeetan parte hartzea - Koordinatzaile pedagogikoa/bateratze-koordinatzailea edo antzekoa - Bestelakoak
2.3.– Esperientzia profesionala (15 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Arloari loturiko esperientzia profesionala (lizentzia fiskalaren edo lan-kontratuaren bidez akreditatuta) - Ekintzailera-jardueretan parte hartzea - Bestelakoak

3.– Kudeaketa eta administrazioa (5 puntu gehienez)

3.1.– Unibertsitateetako estatutuetan jasota dauden (edo haiekin parekatu diren) unibertsitate-kudeaketako pertsona bakarreko erantzukizun-karguak betetzea, Unibertsitate-irakaskuntzako jardunbidea (5 puntu gehienez)

3.2.– Administrazioan lanpostuak betetzea, hezkuntzaren alorrean edo norberaren esparruan ikertzaile gisa: (5 puntu gehienez)

3.3.– Kudeaketako beste meritu batzuk (3 puntu gehienez)

4.– Prestakuntza akademikoa (5 puntu gehienez)	
4.1.– Unibertsitate-irakaskuntzako prestakuntza (5 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Europako Tesia edo Nazioarteko Unibertsitate entzutetsuetan doktoretza - Doktoretzako aparteko saria - 6 hilabetetik gorako masterrak edo graduatu ondoko ikastaro espezifikoak - Unibertsitateko beste titulazio batzuk - Hizkuntzen akreditazioa - Jasotako prestakuntza-ikastaroak, 20 ordutik gorakoak - Unibertsitateko irakasleak prestatzeko mintegi, biltzar edo ikastaroetan hizlari gisa aritzea - Unibertsitateko irakasleak prestatzeko mintegi, biltzar edo ikastaroetan parte hartzea - Bestelakoak
4.2.– Ikerketako egonaldiak (5 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Estatuko nahiz atzerriko unibertsitate- edo ikerketa-zentroetan doktoretza aurreko egonaldiak - Estatuko nahiz atzerriko unibertsitate- edo ikerketa-zentroetan doktoretza ondoko egonaldiak - Unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan irakasle bisitari gisa egonaldiak
4.3.– Doktoretza aurreko eta ondoko bekak eta ikerketako kontratuak (3 puntu gehienez)	
	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako doktoretza aurreko bekak eta kontratuak - Ebaluazio-agentzia aitortuek ebaluatutako doktoretza ondoko bekak eta kontratuak, edo Ramón y Cajal bezalako lanera itzultzeko kontratuak edo antzekoak (homologatuak)

5.– Euskara/interes zientifikoa duen hizkuntza (10 puntu gehienez)

- Euskaraz edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean irakastea
- Doktoretza-tesiak euskaraz edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean defendatzea (defendatutako tesiak)
- Euskaraz edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean egindako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan IP edo **koordinatzaile** gisa aritzea
- Euskaraz edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean egindako irakaskuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzea
- Euskaraz edo interes zientifikoa duen hizkuntza batean ISBNrekin argitaratutako liburuak
- Bestelakoak

1.– *Actividad investigadora y transferencia de conocimiento (hasta 75 puntos).*

1.1.– *Publicaciones y patentes.*

– *Publicaciones (autores, título, revista/libro, vol., pág., año, ISBN/ISSN, factor de impacto en el año de la publicación, posición de la revista en el área). Catálogo de BB.AA. Patentes licenciadas.*

1.2.– *Proyectos y contratos de investigación/transferencia de conocimiento relacionada (con el área y vinculada con la universidad a través de la OTRI o centros similares).*

– *Participación en proyectos de investigación (título del proyecto, código, entidad financiadora, periodo, tipo de participación del solicitante, número de investigadores, cuantía del proyecto).*

– *Participación en contratos de investigación con empresas o instituciones públicas o privadas (hasta un máximo de 3 contratos/año). (Título del contrato, código, empresa o administración financiadora, periodo, tipo de participación del solicitante, número de investigadores, cuantía del proyecto).*

– *Participación en acciones singulares/redes de conocimiento (título de la acción, código, entidad financiadora, periodo, tipo de participación del solicitante, número de investigadores, cuantía del proyecto).*

– *Diseño, puesta a punto y manejo de equipos y técnicas instrumentales novedosas, desarrollo de software de uso común, etc. para la investigación (título de la acción, código, entidad financiadora, periodo, tipo de participación del solicitante, número de investigadores, cuantía de la acción).*

1.3.– *Congresos.*

– *Contribuciones a congresos y conferencias científicas nacionales e internacionales (autores, título de la contribución, tipo de participación, congreso, edición, lugar de celebración, año).*

1.4.– *Actividades de Tercer Ciclo. Dirección de Tesis Doctorales (tesis defendidas)*

1.5.– *Otros méritos de investigación.*

2.– *Actividad docente (hasta 15 puntos).*

2.1.– *Trayectoria docente universitaria.*

– *Experiencia docente (Universidad u otro Organismo, Centro, Departamento, País, año, título del curso impartido, grado o postgrado, duración, en calidad de profesor/investigador/colaborador, dedicación).*

2.2.– *Publicaciones docentes e innovación docente (autores, título, revista/libro/manual/Ed. virtual/otros, capítulo de libro, traducción, vol., pág., año, ISBN).*

2.3.– *Experiencia profesional. Experiencia profesional relacionada con el área acreditada mediante licencia fiscal o contrato laboral.*

3.– *Gestión y administración (hasta 5 puntos)*

3.1.– *Desempeño de cargos unipersonales de responsabilidad en gestión universitaria recogidos en los Estatutos de las universidades, o que hayan sido asimilados,*

3.2.– *Desempeño de puestos en la Administración en el campo educativo o investigador propio de su área.*

3.3.– *Otros méritos de gestión.*

4.– *Formación académica (hasta 5 puntos)*

4.1.– *Formación docente universitaria. Tesis Europea o doctorado en Universidades Internacionales de prestigio. Premio extraordinario de doctorado. Otras titulaciones universitarias, Otros*

4.2.– *Estancias de Investigación. Estancias pre-doctorales y post-doctorales en centros universitarios o de investigación nacionales o en el extranjero. Estancia como profesor visitante en universidades o centros de investigación*

4.3.– *Becas Pre- y Post-doctorales y Contratos de Investigador. Becas y contratos pre-doctorales y post-doctorales evaluadas por agencias de evaluación reconocidas o contratos de reincorporación del tipo Ramón y Cajal o similares homologados*

5.– *Euskeralidioma de interés científico (hasta 10 puntos).*

Docencia en Euskera o en idioma de interés científico. Defensa de Tesis Doctoral (tesis defendidas) en euskera o en idioma de interés científico. Investigador principal o coordinador en Proyectos de innovación docente realizados en euskera o en idioma de interés científico. Participación en Proyectos de innovación docente realizados en euskera o en idioma de interés científico. Libros con ISBN publicados en euskera o en idioma de interés científico. Otros

ANEXO II

CRITERIOS ESPECÍFICOS DE EVALUACIÓN:
PERSONAL DOCTOR DE INVESTIGACIÓN

La valoración de cada uno de los apartados es la siguiente:

- 1.- *Actividad Investigadora y Transferencia de Conocimiento:* hasta 75 puntos
- 2.- *Actividad Docente y Experiencia Profesional:* hasta 15 puntos
- 3.- *Gestión y Administración:* hasta 5 puntos
- 4.- *Formación Académica:* hasta 5 puntos

Los méritos correspondientes a las actividades realizadas a favor de la normalización del uso del euskera en el ámbito universitario o a las actividades realizadas en un idioma de interés científico (inglés, francés, alemán...) se puntuarán hasta 10 puntos adicionales.

<i>Apartados</i>	<i>Puntuación máxima que se puede obtener por apartado</i>	<i>Puntuación mínima para conseguir la acreditación</i>
<i>1.- Actividad Investigadora y Transferencia de Conocimiento</i>	<i>75 puntos</i>	<i>60 puntos</i>
<i>2.- Actividad Docente y Experiencia Profesional</i>	<i>15 puntos</i>	<i>10 puntos</i>
<i>3.- Gestión y Administración</i>	<i>5 puntos</i>	
<i>4.- Formación Académica</i>	<i>5 puntos</i>	
<i>5.- Euskera/Idioma de interés científico</i>	<i>10 puntos</i>	
<i>Total</i>		<i>75 puntos</i>

Para conseguir la acreditación se necesita:

Opción A. - Obtener más de 75 puntos en total y además un mínimo de 60 puntos en el apartado 1 y 10 puntos en el apartado 2.

PERSONAL DOCTOR DE INVESTIGACIÓN

1.– <i>Actividad investigadora y transferencia de conocimiento (hasta 75 puntos)</i>	
1.1.– <i>Publicaciones y patentes (hasta 60 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Libros publicados con ISBN en editoriales de prestigio: Libro, Autor de capítulo, Coordinador (Edit.) del texto</i> - <i>Publicaciones Científicas Indexadas en revistas de nivel medio/alto de su área</i> - <i>Publicaciones Científicas en revistas con consejos de redacción o revisores nacionales</i> - <i>Patentes licenciadas; Patentes no licenciadas; Otro tipo de Propiedad Intelectual</i>
1.2.– <i>Proyectos y Contratos de Investigación/Transferencia de conocimiento relacionada (con el área y vinculada con la Universidad a través de la OTRI/DEIKER o centros similares)/Exposiciones valoradas por expertos o Intervenciones arqueológicas (hasta 25 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>IP en Proyectos financiados en convocatorias competitivas y evaluadas por agencia de evaluación reconocida: autonómicas, nacionales, internacionales</i> - <i>Investigador/a en Proyectos financiados en convocatorias competitivas y evaluadas por agencia de evaluación reconocida: autonómicas, nacionales, internacionales</i> - <i>Proyectos no evaluados por agencias de evaluación reconocidas: IP, Investigador/a</i> - <i>Participación en contratos de investigación con empresas o instituciones públicas o privadas (hasta un máximo de 3 contratos/año)</i> - <i>Participación en Acciones Singulares/Redes de Conocimiento</i> - <i>Diseño, puesta a punto y manejo de equipos y técnicas instrumentales novedosas, desarrollo de software de uso común, etc. para la investigación</i> - <i>Informes, estudios, dictámenes, sobre trabajos técnicos o artísticos (se valorará en función de las horas y/o montante económico)</i> - <i>Organización y desarrollo formativo en Empresas o Instituciones (actividades de más de 20 horas)</i> - <i>Procesos de transferencia de conocimiento/ Procesos de diseño industrial</i>
1.3.– <i>Congresos (hasta 5 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ponencias invitadas o Conferencias plenarias por congreso: Internacional, Nacional</i> - <i>Comunicaciones orales o póster por Congresos: Internacional, Nacional</i> - <i>Participación en mesas redondas</i> - <i>Talleres</i>
1.4.– <i>Actividades de Tercer Ciclo (hasta 20 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Dirección de Tesis Doctorales (tesis defendidas)</i>
1.5.– <i>Otros méritos de investigación (hasta 3 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Organización de Congresos, exposiciones, dirección de festivales de cine, etc.</i> - <i>Participación en la planificación, elaboración y/o diseño de planes de I+D+i</i> - <i>Participación en comisiones externas de evaluación de las acciones de investigación y tecnológicas</i> - <i>Coordinador de grupos de investigación</i> - <i>Otros</i>

<i>2.– Actividad docente y experiencia profesional (hasta 15 puntos)</i>	
<i>2.1.– Trayectoria Docente Universitaria (hasta 10 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Experiencia docente universitaria favorablemente valorada por la Institución</i> - <i>Colaborador como becario o como colaborador docente acreditado (según convenio)</i> - <i>Experiencia docente universitaria de posgrado de investigación o de programas de doctorado (en Universidades u otros Organismos)</i> - <i>Experiencia docente universitaria de posgrado académico o profesional (en Universidades u otros Organismos)</i> - <i>Dirección de Tesinas, DEA, proyectos fin de carrera, etc.</i> - <i>Evaluaciones sobre la calidad de su docencia que aporte el solicitante</i> - <i>Otros</i>
<i>2.2.– Publicaciones docentes e Innovación docente (hasta 5 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Publicaciones de carácter docente con ISBN en editoriales de prestigio</i> - <i>Ediciones virtuales (manual on-line) publicadas por la institución</i> - <i>Traducciones de libros de carácter docente</i> - <i>Otro material docente (libros de prácticas, guías, páginas WEB, etc.)</i> - <i>IP o coordinador en Proyectos de innovación docente</i> - <i>Desarrollo completo de asignaturas en ECTS (realización de guía de aprendizaje)</i> - <i>Participación en Proyectos de innovación docente</i> - <i>Utilización de nuevas tecnologías en la docencia (ejemplos: pag. web, tutorías on line...)</i> - <i>Participación en Proyectos de adecuación al Espacio Europeo de Educación Superior</i> - <i>Coordinador pedagógico/coordinador de convergencia o similar</i> - <i>Otros</i>
<i>2.3.– Experiencia Profesional(hasta 15 puntos)</i>	
	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Experiencia profesional relacionada con el área acreditada mediante licencia fiscal o contrato laboral</i> - <i>Participación en actividades de emprendizaje</i> - <i>Otros</i>

3.– *Gestión y administración (hasta 5 puntos)*

3.1.– *Desempeño de cargos unipersonales de responsabilidad en gestión universitaria recogidos en los Estatutos de las universidades, o que hayan sido asimilados, Trayectoria Docente Universitaria (hasta 5 puntos)*

3.2.– *Desempeño de puestos en la Administración en el campo educativo o investigador propio de su área (hasta 5 puntos)*

3.3.– *Otros méritos de gestión (hasta 3 puntos)*

4.– *Formación académica (hasta 5 puntos)*

4.1.– *Formación docente universitaria (hasta 5 puntos)*

- *Tesis Europea o doctorado en Universidades Internacionales de prestigio*
- *Premio extraordinario de doctorado*
- *Masteres o cursos específicos de posgrado de más de 6 meses*
- *Otras titulaciones universitarias*
- *Acreditación de idiomas.*
- *Cursos de formación recibidos, de más de 20 horas*
- *Ponente en seminarios, congresos o cursos orientados a la formación docente universitaria*
- *Participación en seminarios, congresos o cursos orientados a la formación docente universitaria*
- *Otros*

4.2.– *Estancias de Investigación (hasta 5 puntos)*

- *Estancias pre-doctorales en centros universitarios o de investigación nacionales o en el extranjero*
- *Estancias post-doctorales en centros universitarios o de investigación nacionales o en el extranjero*
- *Estancia como profesor visitante en universidades o centros de investigación*

4.3.– *Becas Pre- y Post-doctorales y Contratos de Investigador (hasta 3 puntos)*

- *Becas y contratos pre-doctorales evaluadas por agencias de evaluación reconocidas*
- *Becas y contratos post-doctorales evaluadas por agencias de evaluación reconocidas o contratos de reincorporación del tipo Ramón y Cajal o similares homologados*

5.– *Euskeralidioma de interés científico (hasta 10 puntos)*

- *Docencia en Euskera o en idioma de interés científico*
- *Defensa de Tesis Doctoral (tesis defendidas) en euskera o en idioma de interés científico*
- *IP o coordinador en Proyectos de innovación docente realizados en euskera o en idioma de interés científico*
- *Participación en Proyectos de innovación docente realizados en euskera o en idioma de interés científico*
- *Libros con ISBN publicados en euskera o en idioma de interés científico*
- *Otros*